

GAROÑAKO ZENTRAL NUKLEARRA

Arrazoi energetikorik ez dago zentralak irekita jarraitzeko



DANI BLANCO

Uztailaren 5a baino lehen Espainiako Gobernuak Garoña behin-betiko ixtea edo luzatzea erabaki behar du. Hainbat eragile luzapenaren aldeko presioa egiten ari bada ere, zenbait adituk berehala ixteko oztopo energetikorik ez dagoela uste du, ezta arrazoi ekonomikorik ere.

DANIEL UDALAITZ

AFERA PSOEKO GOBERNUAREN esku dago. Segurtasun Nuklearre-rako Kontseiluak (CSN) bere iritzia ekainaren 5a baino lehen eman behar zuen, eta Garoñaren jarraipenaren aldeko adierazpenak egin zituen, hainbat baldintza ezarri arren. CSNren iritzia, dena den,

ez da loteslea. Orain PSOEko Gobernuaren txanda da, Garoñako zentral nuklearra behin-betiko ixtea edo beste hamar urterako luzapena ematea erabaki behar baitu. Zapateroren gobernuak bi aukera ditu: batetik, hauteskundeetan hartutako konpromisoak

betetzea, herritarren mobilizazioei eta hainbat esparrutako eskaera politikoei positiboki erantzutea eta, horrenbestez, Garoña zaharkitua ixtea, PSOE barruan kontrako jarrera kualifikatuak egon arren; ala, bestetik, luzapenaren alde dauden enpresa handien eta



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Maiatzaren 30ean manifestazio jendetsua egin zen Gasteizen Garoña berehala ixteko eskatuz. Zentral nuklearra Burgosen dago, Arabatik bost kilometrora.

lobby nuklearraren presioei men egitea.

Garoña Espainiako Estatuko zentralik zaharrena da. Vandellos eta Zorita itxi zituztenetik, funtzionatzen jarraitzen duen lehen belau-naldiko zentral bakarra da. 1995ean Garoñak behin-behineko ustiapen baimena eskuratu zuen eta, aurrerago, aurtan amaitzen den luzapena lortu zuen.

Luzatzeko presioak

Zapatero presio gogorrak jasotzen ari da Garoñaren luzapenaren aldeko erabakia har dezan. Ez soilik kanpotik, lobby nuklear eta kapitalistetatik, baita PSOEn barrutik

ere. Lehenik, presioa CSNtik dator, PSOEko bi kidek, PPko beste bik, eta Iuko bakarrak zuzendutako erakundetik. CSNren txostenak Garoñak martxan jarrai dezala eskatzen du aho batez, besteak beste, hainbat inbertsio baldintza aholkatzen baditu ere. Bigarren presioa eremu kapitalistetatik dator, lobby nuklearretik eta energia esparruko patronaletatik. Zentral nuklearraren jabeek ere, Endesak eta Iberdrolak, luzapenik ezean elektrizitatearen kostuak gora egingo duela argudiatzen dute. Azkenik, hirugarren presioa PSOEtik bertatik dator, Felipe Gonzalezek eta Javier Solanak bultzatuta.

Arrazoi energetiko onargarriak ez


Garoñak martxan jarraitzeko arrazoi energetikoak eta ekonomikoak daudela dio zenbaitek. Baina ez dago zentral hori berehala ixtea saihesteko arrazoi ekonomiko nahiz energetikorik. Horixe uste dute Carlos Bravo Villa eta Alejandro Sota Aira Greenpeaceko aditu eta ekonomialariek. Eta PSOEko exekutibako kide batek, Hugo Morán Ingurumen arduradunak ere gauza bera onartu du berriki. Garoñaren energia ekarpena urria da eta energia berriztagarriek sobera estaltzen dute. Hala, Red Eléctrica Española-ren (REE) arabera, 2008an Garoñak orduko 4.021 gigawatt (Gwh) baino ez zizkion eman sistema elektrikoari, urte hartako elektrizitate ekoizpen garbiaren (279.868 Gwh) %1,43. Iturri berberaren arabera, 2007an guztira sortutako elektrizitatearen %23 energia iturri berriztagarriek ekoiztu zuten (zentral nuklear guztiek batera sortutakoa baino %3 gehiago). Haize energiak bakarrik 2008ko energiaren %11 ekoiztu zuen.

Energia nuklearraren aldekoen beste argudio bat Espainiako Estatuak beste herrialde batzuekiko duen menpekotasun energetikoa da. Hori ere ez da egia. 2008an Garoña bezalako hiru zentralak ekoiztuko luketen elektrizitate kantitatea esportatu zuen Espainiako Estatuak. Hain zuzen, Espainiako sistema elektrikoaren nazioarteko elektrizitate trukeek 11.221 Gwh-ko saldo esportatzaile garbia eragin zuten 2008an, 2007an baino %95 gehiago, REEko datuen arabera. Azkenik, ikuspegi ekonomikoari dagokionez, Garoña amortizatuta dago jada.

Segurtasun akatsen segida

Egitura arazo larriez gain, zentral-eko hainbat ekiporen eta elementuren egoera kaxkarrak segurtasun akatsen segida ekarri du azken urteotan, horietako batzuk 1. mailakoak, Gertaera Nuklearren Nazioarteko Eskalaren (INES) arabera, eta maiz Garoñako erreaktorea geldiaraztea behartu dutenak. Azken gertaera nabarmena 2008ko abuztuko izan zen: larrialdietarako elektrizitatearen hornidura sistemak

Elektrizitatearen jatorria Espainiako Estatuan (2008)



Francok inauguratu zuen 1970ean

1960ko hamarkadan diseinatua, Garroñako zentral nuklearra Franco diktadoreak inauguratu zuen 1970ean, jarduera produktiboa 1971ko martxora arte abiatu ez arren. Burgoseko lurretan dago, Euskal Herritik hurbil. Gasteiztik 40 km-ra dago, Bilbotik 54 km-ra, Donostiatik 118 km-ra, Baionatik 180ra eta Iruñetik 131ra. Iberdrolak eta Endesak partekatzen duten enpresako datuen arabera, 767 langile ditu. Horietatik 306 Nuclenoreko langileak dira, eta gainerako 461ak, beste 45 kontratu enpresetakoak. 2008an 2.338,68 milioi Kw sortu zituen. 1971ko martxoan zentrala abian jarri zutenetik gaur arte ekoizpena 116.609,04 milioi Kw-koa izan da.

Garroñakoa erreaktore mota zaharra da, dagoeneko "araudiaz kanpo" dagoena. Greenpeaceko aditu Carlos Bravo eta Alejandro Sotak diotenez, horrelako erreaktore batek ez luke egun lizentziarik lortuko, gaur egun nazioartean eskatzen diren segurtasun irizpideak betetzen ez dituelako.

Garroña 25 urtez jarduteko diseinatu zuten, baina 38 urte daramatza martxan. Garroñako erreaktore nuklearraren egin du, beti ere Greenpeaceko adituen esanetan. Oso agerikoa da hondatzen eta zahartzen ari dela. Duela urte batzuetatik hona pitzadura anizkuna



jasaten ari da ("tentsiopeko korrosioa-rengatiko pitzadura" deitzen dioten fenomeno suntsitzailearen eraginez). Pitzadura prozesu horrek erreaktorearen ontzi barruko hainbat osagairi eragiten die, eta bertatik pasatzen dira kontrol barrak, erreakzio nuklearraren "balaztatze sistema", alegia. Pitzadura prozesuak okerrera egiten du eta itzulezina da, CSN erakundeak Espainiako parlamentuan onartu duenez.

huts egin zuen eta, ondorioz, INE-Sek 1. mailako zigorra ezarri zion zentralari.

Eta gogoan izan behar dira beste huts batzuk ere: erreaktorearen eraikineko aireztatze balbulen ezohiko funtzionamendua (hau ere 1. mailakoa) eta erregai nuklearraren elementu bat haustea, 2006an; erreaktorearen putzu lehorreko ur jarioak, 2007an; lehen euskarriaren barruko airez-

tatze sistemaren matxura, 2008an. Greenpeaceko salaketei esker jakinarazitako azken segurtasun akatsa erregai nuklearraren elementu bat haustea izan da. Baina 2009.

2008an Garroña bezalako hiru zentralek ekoiztuko luketen energia esportatu zuen Espainiako Estatuak

urteko orain arteko hilabeteetan dagoeneko bederatzi gertaera izan dira, besteak beste, programatu gabeko bi etenaldi, sute bat eta elektrizitatea transformadore baten eztanda. Azken gertaera horrez gain, hauek izan dira 2009ko arazo nagusiak: otsailean (11n eta 27an) bi gertaera jaso ziren; martxoan, aldiz, hiru (4an, 10ean eta 21ean) eta apirilean, beste hiru (1ean, 6an eta 23an). ■

